

IRAKASKUNTZA-GIDA 2017/18

Ikastegia 135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi **Zikl.** Zehaztugabea

Plana GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua **Ikastaroa** 4. maila

IRAKASGAIA

25772 - Jarduera Fisiko Inklusiboa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai honetan ez-gaitasun fisiko edo diskriminazio soziala sufritzen duten pertsonak ditugu lan esparru. Ikasle bakoitzak eduki eta erabili behar dituen komunikazio trebeziak eta jakinduria oinarritzen da.

Horrela, ikasleak diskriminaturik dauden edota ez-gaitasun bat daukaten pertsonen kalitatezko zerbitzu bat emateko gaitasuna garatzea espero da esparru inklusibo batean, bai jolas, kirol edo kontextu kliniko batean, osasuna helburu.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IRAKASGAIKO BERARIAZKO KONPETENTZIAK

C.1 - Ikasleari behar adinako formakuntza eskaini, Jarduera Fisiko Inklusiboak eskola normalizatura, eskola ez-formalera eta beste hainbat egoeretara egokitzeko; bai hezkuntza, bai aisia bai eta lehiaketa arloan ere.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, jarduera fisiko inklusiboa kasu zehatz bakoitzarako bideratzeko tresnak garatuko ditu

C.2.- Ikasleak ezagutu dezala Premia Bereziak dituzten pertsonen nolako zailtasunak eta aukerak dituen hezkuntzan eta gizartean parte hartzeko; eta gainera, kontzientzia hartu dezala, hori lortzeko, gizakiak jarrera egokia izatea ezinbesteko dela.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, behar bereziak dauzkaten pertsonen arazo espezifikoak identifikatzeko gaitasunak garatuko ditu eta jarrera on baten garrantzia ulertuko du

C.3.- Jarduera Fisikoa eta Kirola urritasun fisikoa, psikikoa edo sensoriala duten pertsonen (ume, gazte eta helduei) egokitu eta aniztasun egoera ezberdinei (bai eta sozialak edo kulturak direnei ere) erantzun hoberena eskaintzea, eguneroko bizitza arruntean integrazio soziala lortu dezaten.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, edonolako beharrak dauzkaten pertsonentzako jarduera fisiko inklusiboko klaseak moldatzeko estrategiak ikasiko ditu

C.4.- Bizi guztirako osasuna zaintzeko gaitasunak ikasi eta edozein arlotan, hau da, aisialdian edo instituzio ezberdinetan parte hartzeko gaitasunak lortzea.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, behar bereziak dauzkaten pertsonen osasuna babesteko proposenak diren estrategiak ikasiko ditu

C.5.- Jarduera fisikoa eta Kirol Egokituari buruzko erakunde eta elkarten informazioa jaso dezatela.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, jarduera fisiko inklusiboarekin eta kirol moldatuarekin zerikusirik dauzkaten federazioen eta erakundeen estruktura ikasiko du

C.6. - Gizakiaren motrizitatean eragina duten mota ezberdinetako ikerketak eta zailtasunak ezagutu eta aztertu, hauei erantzun bat emateko, hauek ulertzeko, eta gizakiaren nortasunari buruzko ikuspegi orokor bat izateko.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, giza gorputzak dauzkan limitazioak identifikatzeko eta baita limitazio hauei erantzuna emateko gaitasuna garatuko du,

C.7. – Norbere arloan eta lanean etengabe hobetzeko sena eta joera bereganatu.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, jarrera on baten garrantzia ikasiko du behar bereziko pertsonen lan egiteko garaian

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

G019 Lidergorako, pertsonen arteko harremanetarako eta taldean lan egiteko trebetasunak garatzea (Landuko da)

G020 Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea (Landuko da)

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

I. GAI MULTZOA: GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA

1. Gorputz hezkuntza inklusiboa.

- Kontzeptua.
- Ikuspuntu historikoa.
- Terminologiaren interpretazio ezberdinak.
- Interbentzio egoerak

2. Nori zuzendua dago GHI.:

- urritasun psikikoa: adimena urritasuna, urritasun mentala: Kontzeptua eta ezaugarriak.
- urritasun fisikoa: Kontzeptua eta ezaugarriak.
- urritasun sentsoriala: Kontzeptua eta ezaugarriak.
- urritasun soziala: Kontzeptua eta ezaugarriak.

3. Ikuspegi inklusiboa irakaskuntza formalean: Gorputz Hezkuntza arloa.

- Gizarte integraziorako legedia
- Eskola Integrazioa: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.
- Egokitzapen kurrikularra
- Heziketa Fisikoaren Interbentziorako bide berriak.
- Eskola Inklusiboa

4. Jarduera Fisikoa Egokitua egoera ezberdinetan:

- Segregazio egoeratan: Elkartetan, Apdema, ASPACE, ATZEGI etab
- Integrazio egoeratan: Eskola normalizatuan. Eskolaz kanpo.
- Diseinu kurrikularra
- Laguntzak eta giza-baliabideak esku-hartzeko.
- Ikerketak eta esperientziak

II. GAI MULTZOA: INKLUSIORAKO JARDUERA FISIKOA

1: Kontzeptua eta egitura.

Inklusioa hezkuntza arautuan

Inklusioa jarduera fisikoan

Inklusioa kirolean

2.- Kirol egokituaren antolaketa Estatu mailan. Federazioen egitura.

2.1.- Berezko federazioak

Federación Española de Deporte para personas con Parálisis cerebral y/o lesión Cerebral (FEDPC).

Federación Española de Deporte para Discapacitados Físicos (FEDDF)

Federación Española de Deporte para Discapacitados Intelectuales (FEDDI)

Federación Española de Deporte para Ciegos (FEDC)

Federación Española de Deporte para Sordos. (FEDS)

Ezgaitasuna duten kirolariek osatutako modalitate bakarreko federazioak.

2.2.- Autonomi erkidego desberdinetako federazioen ereduak

2.3.- Kirol elkarteak

3.- Kirolen sailkapena.

3.1.- Zenbait kirolen azterketa eta beren egokitzapenak

3.2.- Kirol bereziak

3.3.- Egokitutako kirolak

3.4.- Eskola kirolerako egokitzapenak. Eskola kirol Jokoak.

METODOLOGIA

A) Eduki teorikoak: Klases magistralak ikus-entzunezko materialean oinarrituz (aurkezpenak Powerpoint-arekin).

Ondorengo ere erabiliko da:

- Eztabaidaturiko aurkezpenak taldearekin. Ikasleen partehartzea bultzatuko da galderekin.
- Derrigorrezko lanen aurkezpenak (irakaslearen ikuskapenarekin)
- Klasean ikusitako textuen iruzkinak
- Eztabaidak eta debateak
- Klasean ikusitako textuetatik edo bideoetatik ateratako kasu zehatzen azterlanak
- Bideoen aurkezpenak

B) Eduki praktikoak: Irakasleak zuzenduko ditu saio praktikoak. Kontextu ezberdinetan garatu daitezke (gelan edota kiroldegian). Ikasleek, zehaztuko diren egunetan, praktika lanak aurkeztu beharko dituzte (klasean emandako jarraibideak jarraituz).

eGela erabili egingo da irakaskuntzarako euskarri bezala, batez ere ikasleari informazioaren bilaketa errazteko, baina baita ikasleen arteko elkarlana bultzatzeko (beti irakaslearen ikuskapenarekin)

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	10	20						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	45	15	30						

Legenda: M: Maistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ahozko defentsa % 25
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 25
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 20
- Competencias G019 y G020 + Asistencia % 20

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleak 2 era hauen arteko bat aukeratu beharko du:

a) Ebaluaketa jarraia: Klaseen %80ko asistentzia gutxienez, bertako saio teoriko-praktikoetan adeitsu parte hartuz eta eskatutako lan guztiak entregatuz. Aprobatzeko atal bakoitzean gutxienez 4ko nota lortu beharko du. Ikasleak ebaluazio jarrairi uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikastur-tea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da.

b) Idatzizko azken proba. Kalifikazioaren %100 balio du.

Deialdiari uko egitea.

1.– Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

2.– Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

3.– Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

G019 eta G020 zeharkako konpetentziak ebaluatuko dira

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Idatzizko azken proba honek kalifikazioaren %100 balioko du, ohizko deialdian aukeratutako modalitea alde batera utzita.

Ikaslea ez bada deialdietako batera aurkezten, honi uko egiten duela ulertzen da, eta deialdi hori ez zaio zenbatuko

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Hernández Vazquez, F.J. (2012) Inclusión en Educación Física. Las claves del éxito para para la inclusión del alumnado con capacidades diferentes. INDE. Barcelona.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Calvo Rodríguez & Martínez Alcolea, Ángel. R. & A. Técnicas, procedimientos e instrumentos para realizar las adaptaciones curriculares. Madrid, 1997. Ed. Escuela Española.
- Hernández & Hospital & López. Educación Física, deporte y atención a la diversidad. Málaga, 1997. Ed. Instituto Andaluz del Deporte.
- Hernández Vazquez, F.J. (2012) Inclusión en Educación Física. Las claves del éxito para para la inclusión del alumnado con capacidades diferentes. INDE. Barcelona.
- Gomendio, M. Educación Física para la Integración de niños con necesidades educativas especiales. Madrid, 2000. Ed. Gymnos

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Gomendio, M. (1994). Gorputz Hezkuntza Gidaliburua. Otsoko. Editorial Elkar. GIE.
- Kasser, S.L. Inclusive Games. Movement fun for everyone. United Kingdom, 1995. Pb. Human Kinetics. Autores
- Mendoza, N. (2009) Propuestas practices de educación física inclusiva para la etapa de Secundaria. INDE. Barcelona.
- Pérez, D., López, V. y Iglesias, P. (2004) La atención a la diversidad en educación física. Wanceulem. Sevilla
- Varios. Bigarren Zikloko Gidaliburua. Otsoko. Editorial Elkar. GIE.1994

Aldizkariak

www.cady.com/revista
www.edeporte.rediris.es/revista

Interneteko helbide interesgarriak

www.european-agency.org
www.cermi.es
www.ince.mec.es
www.3usal.es/inico
www.psicomotricidad.com
www.berrigasteiz.com
www.ncpad.org/disability
www.tash.org
www.efdeportes.com
www.efdeportes.com
www.cpe.es
www.fedpc.org
www.feddf.es
www.feddi.org
www.fedc.es

OHARRAK

Kirol arropa beharko da kiroldegian egiten diren praktiketarako